# 0

- Pintura Espainiarra 1100 - 1850
- Pintura Alemaniarra 1450 - 1800
- Eskultura
- Pintura Flandestarra 1430 - 1570
- Pintura Italiarra 1300 - 1600
- Aldi Baterako Erakusketak

**JERÓNIMOS ERAIKINA**
ALDI BATERAKO
ERAKUSKETAK (A-B)

Hitzaldi Aretoa
Entzunaretoa
Prado Kafea
Prado Denda

**VILLANUEVA ERAIKINA**
1100 - 1600 PINTURA
ESKULTURA

VAN DER WEYDEN (58)
EL BOSCO (56A)
PATINIR (56A)
DURERO (55B)
RAFAEL (49)
TIZIANO (75)
TINTORETTO (75)
GOYA (64-67)
SOROLLA (60-63)
FORTUNY (60-63)

- Kontsigna
- Igogailua
- Eskailera mekanikoak
- Eskailerak
- Prado Kafetegia
- Jatetxea
- Prado Denda
- Audiogida
- Entzunaretoa
- Hezkuntza
- Edoskitze-gela
- Informazioa
- Atseden-gunea
- Museoaren Lagunak
- Liburu-denda
- Hitzaldi Aretoa
- Komunak
- Mugikortasun muga-tuko pertsonentzako komunak




# 1

- Pintura Espainiarra 1550 - 1850
- Pintura Alemaniarra 1450 - 1800
- Pintura Frantziarra 1600 - 1800
- Pintura Flandestarra 1600 - 1700
- Pintura Italiarra 1300 - 1800
- Pintura Britainiarra 1750 - 1850
- Pintura Holandarra 1600 - 1695
- Aldi Baterako Erakusketak

**JERÓNIMOS ERAIKINA**
ALDI BATERAKO
ERAKUSKETAK (C-D)

Denda

**VILLANUEVA ERAIKINA**
ALDI BATERAKO
ERAKUSKETAK
1600 - 1850 PINTURA

GRECO (8A-10A)
TIZIANO (11, 40-44)
TINTORETTO (40-44)
POUSSIN (3)
CARAVAGGIO (5)
REMBRANDT (7)
RUBENS (8-11)
VELÁZQUEZ (12, 14-16, 18)
RIBERA (25-26)
MURILLO (28-29)
GOYA (32, 34-38)
MENGS (20)
TIEPOLO (23)
GAINGSBOROUGH (21)
REYNOLDS (21)

- Kontsigna
- Igogailua
- Eskailera mekanikoak
- Eskailerak
- Denda
- Telefonoa
- Audioguida
- Botika
- Informazioa
- Komunak
- Mugikortasun muga-tuko pertsonentzako komunak



2

JERÓNIMOS ERAIKINA
ESKULTURA
LEONI (CLAUSTRO)

VILLANUEVA ERAIKINA
ALDI BATERAKO
ERAKUSKETAK
1700 - 1800 PINTURA

GOYA (85, 90-94)




-1

VILLANUEVA ERAIKINA
DEKORAZIO ARTEAK

DOFINAREN ALTXORRA
(100-102)




## MUSEOAREN BILDUMA

**PINTURA ESPAINIARRA**
**1100 - 1850**
Irizpide kronologiko bati jarraikiz, XII. mendeko mural erromanikoak zein Goyaren pinturak, XIX. mendekoak, erakusten ditu Pradoko Museoak. Beheko solairuan Erdi Aroko eta Errenazimentuko pinturak daude ikusgai. Solairu nagusian El Greco, Ribera, Murillo eta Velázquez pintoreen eta Urrezko Mendeko beste artista batzuen lanak erakusten dira. Bukatzeko, solairu nagusian zein bigarrenean Goyaren lanak daude ikusgai.

**PINTURA ITALIARRA**
**1300 - 1800**
Pintura italiarrari dagokion atalak, Lehen Errenazimentutik -Fra Angélico, Mantegna, Botticelli- XVIII. mendera arteko -Tiépolo- lanak hartzen ditu bere baitan. Beheko solairuan, Rafaelen, eta batez ere, Veneziako eskolako pintoreen -Tintoretto, Veronés eta Bassano- lanek Pradoko multzorik trinkoenetako bat osatzen dute. Tiziano eta Gentileschi artisten lanak solairu nagusian daude ikusgai.

**PINTURA ALEMANIARRA**
**1530 - 1800**
Lan gutxikoa, baina kalitate handikoa da pintura alemaniarraren bilduma, XVI. eta XVIII. mendeetako lanak bere baitan hartzen dituena. Beheko solairuko areto batean, Alberto Durero, Lucas Cranach eta Baldung Grien artisten lan gailenak daude ikusgai. Bigarren solairuko areto batean, Anton Rafael Mengs pintore neoklasikoaren lanak erakusten dira.

**BRITAINIAR MARGOLARITZA**
**1750-1850**
Museoak badu une honetan Ingalaterran kulturaren distiraldi handia izan zen XVIII. mendeko eta XIX. mende hasierako erretratu bilduma hautatu bat. Lehen solairuan Gainsbourgh, Reynolds eta Lawrenceren lanak ikus daitezke.

**ESKULTURA**
XVI. mendetik XIX. mendera bitartean, Italiatik ekarritako berrehun eta hogeitik gora eskultura klasikoak, Museoan ikusgai daudenak, greziar arte arkaikotik denboraldi heletistikora eta erromatar mundura arteko eskulturaren erakusgarri dira. Eskultura-bilduma, Leonitarren lanekin osatzen da, hain zuzen ere, Carlos V.ak eta Felipe II.ak XVI. mendean enkargatutakoekin.

**PINTURA FLANDESTARRA**
**1430 - 1700**
Herbehereak monarkia hispaniarraren barruan egoteak azaltzen du Pradoko Museoan eskola flandestarreko naro pintura egotea. Beheko solairuan primitibo holandarren -Weyden, Bouts, Memling- zein El Boscoren eta XVI. mendeko beste artista batzuen bildumak daude ikusgai. Solairu nagusian XVII. mendeko pintura flandestarraren multzo garrantzitsua erakusten da: besteak beste, Rubens, van Dyck eta Brueghel pintoreen lanak.

**PINTURA FRANTZIARRA**
**1600 - 1800**
XVII. mendean Espainiaren eta Frantziaren artean zeuden harremanak, eta hainbat erregek, hala nola, Felipe IV.ak eta Felipe V.ak, eskuratutako pinturak dira Pradoko frantziar pinturen bildumaren oinarri. Poussin eta Claudio de Lorena artisten lanak daude ikusgai solairu nagusian, eta bigarren solairuan, Watteau pintorearenak.

**MARRAZKIAK ETA ESTANPAK**
Lau mila marrazki inguru gordetzen ditu Museoak. Nabarmengarria da Goyaren bostehun marrazki eta estanpen bilduma, munduko garrantzitsuena. Pradoko bildumetako marrazkiak eta grabatuak Museoko erakusketetan erakusten dira aldian-aldian.

**DEKORAZIO ARTEAK**
Bilduma iraunkorreko hainbat aretotan banaturik erakusten dira harri gogorrezko mahaiak zein kontsolak, XVI. mendetik XVIII. mendera bitartekoak, baita "cassoni" direlakoak, idazmahaiak, Urbinoko zeramikak eta formatu txikiko eskulturak ere. "Dofinaren altxorra" izeneko bilduma da garrantzitsuena, Felipe V.ak Dofin Handia izan zen bere aitarengatik jarauntsitako bitxiek osaturikoa. Altxor moduan erakusten da, Museoko sotoko solairuan.

**ALDI BATERAKO ERAKUSKETAK**
Eskatu aldi bateko erakusketen berri informazio-mahaian.

## INFORMAZIOA

**MUSEOKO ORDUTEGIA**
Asteartetik igandera:
9.00etatik 20.00etara
(Bildumarako sarrera itxi baino 30 minutu lehenago arte. Aldi bateko erakusketetarako sarrera itxi baino ordubete lehenago arte. Aretoak hustea itxi baino 10 minutu lehenago hasten da)

**ITXITA**
Astelehen guztiak, urtarrilaren 1, Ostiral Santua, maiatzaren 1 eta abenduaren 25

**PRADO KAFEA**
Asteartetik igandera:
9.00etatik 19.30etara

**PRADO DENDA**
Asteartetik igandera:
9.00etatik 19.30etara

**SARRERAREN PREZIOA**
**MUSEOAREN BILDUMA**
**Orokorra:** 8 € (leihatilan)
7 € (Internet edo 902 10 70 77)*
**Taldeak:** 7.50 €
(aurrez erreserba eginda: BAZ)*
**Beheratua:** (kreditazioarekin)
4 € (leihatilan)
3.50 €
(Internet edo 902 10 70 77)*
- Familia ugariko kide diren EBko herritarrak
- EBko kide ez diren herrialdeetako 25 urtez behetiko ikasleak
- Gazte-txartela dutenak

**Doan:**
(kreditazioarekin)
- 18 urtetik beherakoak
- EBko 65 urtetik gorako herritarrak. 60 urtetik gorako erretiratuak.

Betiko erabateko ezgaitasuna duten pentsiodunak
- Langabezian dauden EBko herritarrak
- Ezintasuna dutenak
- EBko kide diren herrialdeetako 25 urtez behetiko ikasleak
- Pradoko Museo Nazionalaren Adiskideen Elkarteko, APEME, ANABAD, AEM eta ICOM elkarteetako kideak
- Museoaren edukiarekin lotura zuzena duten irakasgaietako irakasleak
- Kultura Ministerioari atxikitako museo estataletako langileak
- Turismo-gidari ofizialak
- Kazetariak
- Familia ugaria: pertsona heldu bat eta hiru ondorengo gutxienez (edo bi, horietako batek ezgaitasunen bat badu) sartzen badira

**BILDUMARAKO DOAKO ORDUTEGIA**
- Asteartetik larunbatera: 18.00etatik 20.00etara

Igandea: 17.00etatik 20.00etara
- Maiatzaren 2a, maiatzaren 18a, urriaren 12a, azaroaren 19a eta abenduaren 6a

**ALDI BATEKO ERAKUSKETAK**
Sarreraren prezioa eta sartzeko baldintzak Museoaren Zuzendaritzaren erabakiko ditu

**ABONAMENDUAK**
- Pradoko Museoko urtebeteko txartela: 48 €
- Museo Estataletako urtebeteko txartela: 36,06 €
- Artearen paseoa (Prado, Thyssen eta Reina Sofía): 14,40 €

**PRADOKO MUSEO NAZIONALA**
Paseo del Prado z/g. 28014 Madrid
museo.nacional@museodelprado.es
www.museodelprado.es
**Bulego-eraikina:**
Ruiz de Alarcón, 23. 28014 Madrid
**Ikerketa Zentroa, Liburutegia:**
Alfonso XII, 28. 28014 Madrid

**BISITARIAREN ARRETARAKO ZENTROA (BAZ)***
INFORMAZIOA, ERRESERBAK, AURRETIAZKO SALMENTA ETA TALDEAK
902 10 70 77
www.museodelprado.es

Baliteke plano honetan ematen den informazioak aldaketa batzuk izatea geroztik, zerbitzuak berrantolatu direlako. Pradoko Museoa bere bildumak berrantolatzen ari da. Horregatik, gerta daiteke zenbait obra lekuz aldatuta egotea plano honetan jasota dagoenetik. Barkatu eragozpenak.

GOBIERNO DE ESPAÑA — MINISTERIO DE CULTURA

Telefónica

BISITARIAREN ARRETARAKO ALORRAREN ONGILEA

Datuen Babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. CCTV.
Gogora ezazu Prado Museoak kontrolatuta zaudela. Informazio gehiago jakiteko, deitu telefono-zenbaki honetara: 902 10 70 77

Azala: Greco. Zalduna eskua bularrean duela. Xehetasuna.

555-09-007-4

EUSKERA

MUSEO NACIONAL
DEL **PRADO**

# Planoa

2009

